

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 7 milioi inbertitu ditu Irurtzun-Inasa industrialdean, Nafarroko birsorkuntza industrialeko lehen jarduketa osatuz

Bertan finkaturiko enpresek 240 pertsonari lana eman eta 140 milioi euroko urteko fakturazioa sorrarazten dute

Asteartea, 2019.eko urtarrilak 15

Nafarroako Gobernuak 7 milioi inbertitu ditu Inasak Irurtzunen zuen lursaila berrurbanizatzeko, Nafarroan bideratutako birsorkuntza industrialeko lehendabiziko jarduketa osatuz. Bertan finkatuta dauden zazpi enpresek 240 pertsonari lana eman eta 140 milioi euroko guztizko fakturazioa sorrarazten dute urtero.



Ayerdi lehendakariordea, tokiko agintariekin eta enpresen ordezkariekin.

Foru Exekutiboko Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik eraberritutako lursaila bisitatu du astearte honetan. Harekin izan dira Irurtzongo alkate Aitor Larraza, Arakilgo alkate M^a Paz González, Nasuvinsa sozietate publikoko kudeatzaile José M^a Aierdi, SODENAKo zuzendari kudeatzaile Pilar Irigoien Ostiza, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaile Paz Fernández eta bertan finkatutako enpresen, eskualdeko udalen eta Sakanako Mankomunitatearen ordezkariak.

Topaketan, Nafarroako Gobernuak duela bi urte erosi zuen industrialde zabal honetako berrurbanizazio lanak gainbegiratu eta egiteko zain dauden azken jarduketak nahiz etorkizunean bidera daitezkeen handitze-lanak aztertze-ko aukera izan dute. Industrialdeak 140.000 metro koadroko guztizko azalera du eta egungo okupazio-maila % 72koa da.

Zazpi enpresa finkatuta

Hirigintza-jarduketa honek enpresa berrien ezarpena erraztu du, krisialdian langabeziak gogor zigortu duen eskualde honetan enplegua sortzen laguntzeko eta, historikoki –Sakana, Larraul eta Leitizaran zeharkatzen dituen N-1 errepidearekiko lotura eta kokapen estrategikoari esker-, eskualdeko ekonomiaren erreferentzia izan den industrialde handi honen narriadura urbanistikoa saihesteko.

Egun, Inasaren lehenengo instalazioetatik abiatuta garatu den Irurtzongo industrialdean, urtean 140 milioi euro baino gehiago fakturazten

duten zazpi enpresa industrial finkatuta daude, batzuk jardueran murgilduta dagoeneko, eta beste batzuk nabeak eraikitzeko edo lantegiak handitzeko fasean. Hartara, Irurtzungo industrialdean jarduera betean murgilduta dauden Hydro-Extruded Solutions Navarra (SAPA Profiles) eta Puertas Dile enpresekin batera, Saprem (Sociedad Anónima de Preformados Metálicos) eta Manfisa (Manufacturas Irular S.A.) industrialdean izango dituzten lantegiak bukatzen ari dira, Embalajes Bretón nabe berria eraikitzen ari da eta Transportes Plazaola eta Construcciones Apezetxea enpresek bertan finkatzeko konpromisoa gauzatu dute. Guztien artean, 240 pertsonari lana ematen diote.

Nasuvinsak Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko Departamentuaren babespean gauzaturiko hirigintza-jarduketarako, 7 milioi eurotik gorako guztizko inbertsioa egin behar izan da. Kopuru horretatik, 2,5 milioi zorua erosteko erabili dira eta gainerako ia 5 milioiak urbanizazioa eta azpiegiturak egiteko: 2,2 milioi lanetarako, 700.000 euro elektrifikaziorako eta beste 600.000 euro zoruen deskontaminaziorako, besteak beste. Egun, bideratzeko zain dago industrialdeko azken egokitze-lanetarako aurreikusita dagoen 1,4 milioi euroko kontu-saila. Kopuru hauei esker, Nasuvinsa sozietate publikoak inbertsioak salmentekin berdindu dituen oreka finantzarioaren barruan garatu ahal izan du hirigintza-eragiketa hau.



Ayerdi, Puertas Dile enpresako kudeatzailearekin.

Instalazioetarako bisita

Ayerdi lehendakariordeak berrurbanizazio lanak bukatzeaz dituzten lursailak eta berrikitan eraikitako nabe industrialak bisitatu ditu, hirigintza-jarduketan emaitza ezagutzeko. Ondoren, topaketa laburra izan du industrialdean kokatu eta jardunean diharduen Puertas Dile enpresaren lantegian antolatu beharreko lan-jardunaldiko partaideekin.

Bisitaldian, Garapen Ekonomikoko titularrak Irurtzungo proiektuaren garrantzia nabarmendu du, “jarduketa paradigmaticoa baita gure industria-ondare historikoa berreskuratzeko, birgaitzeko eta jarduera ekonomikoa nahiz enplegu finko eta egonkorra sortzen lagun dezakeen etorkizuneko aktibo bihurtzeko, bereziki krisialdian horren zigortuta egon diren eta egun susperraldi industrialaren zutabe bilakatu zaizkigun hau bezalako eskualdeetan”.

“Eskualdearen garapen sozioekonomikorako palanka”

Horren harira, Manu Ayerdik nabarmendu du sektore publikoak eta Gobernuak “enpresei berraktibatzen laguntzearen alde apustu egin dutela, horien ezarpena sustatuz eta erraztuz, garatzeko bidean dauden industrialde hauek eskualde osoaren garapen sozioekonomikorako palanka bihurtzeko”.

Irurtzungo proiektua da Gobernuak Nasuvinsa sozietate publikoaren bitartez bideratu duen birsorkuntza industrialeko –berrurbanizazioa, zoruen deskontaminazioa eta egun narriadura-egoera aurreratuan dagoen industrialdeko azpiegituren zatikako berrerabilpena- lehendabiziko jarduketa, eta duela 7 urte abiatu zen Inasa Foil lantegi ezagunaren itxieraren harira.

Ondoren, Irurtzun eta Arakilgo udalen eskariz, foru Gobernuak Inasaren erabilerarik gabeko instalazioak erostea erabaki zuen 2016ko urrian, horiek berrantolatzeko, birgaitzeko eta eskualdeko garapen-bideko esparru ekonomikoa bihurtzeko xedez.

Berrantolaketa, deskontaminazioa eta energia-horniketa

Nasuvinsak gauzaturiko lanen barnean, inguruaren berrantolaketa urbanistikoa egin da lursailen nahiz nabe industrialen komertzializazioa eta egindako inbertsioaren ordaina bermatzeko; Inasaren lehengo instalazioen zatikako eraisketa egin da egiturei eta azpiegiturei ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko; lehengo jarduerari atxikako zoruen kutsadura garbitu da, energia-banaketa berrantolatu eta industrialdeko errepide-egitura eguneratu da, besteak beste.

Irurtzungo industrialde berriak 140.000 metro koadro gordineko guztizko azalera du; horietatik, 110.000 metro koadro lursail industrialak antolatzeke erabiliko dira, eta gainerakoa berdegunean, zerbitzuak eta bideak egiteko. Egun, 80.000 metro koadro –azalera erabilgarriaren % 72- lursailak eta nabe industrialak saltzeko edo alokatzeko konprometituta daude aipaturako zazpi enpresekin, eta 30.000 metro koadro erabilgarri daude oraindik ezarpen berriak egiteko, baita Irurtzungo Udalaren esku utziko den negozio-zentroa ere.

Galería de fotos



Vista de la reurbanización de la antigua Inasa.